Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2024ko abuztuaren 6a, asteartea — 150 — Martes, a 6 de agosto de 2024

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA — 2 — ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## KULTURA, LANKIDETZA, GAZTERIA ETA KIROL DEPARTAMENTUA

*FA-KG-2024-0374 Foru Agindua, uztailaren 29koa, 2024-2025 ikasturterako eskola adineko jarduera fisikoko eta kiroleko jardueren programa onesten duena.*

Departamentuko foru diputatuak honako foru agindu hau eman du gaur:

Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Fisikoari eta Kirolari buruzko martxoaren 30eko 2/2023 Legeak eta Eskola Kirolari buruzko uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuak lege esparru bat osatzen dute, zeinaren arabera foru aldundietako organo eskudunek beren lurralde historikoetan prestatu behar baitituzte eskola adineko jarduera fisikoko eta kiroleko jardueren programak.

Era berean, Kirolaren Euskal Planak, Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak 2003ko uztailaren 22an eta Kirolaren Euskal Kontseiluak 2003ko ekainaren 2an onartutakoak, EAEn eskola kirola antolatzeko jarraibideak jasotzen ditu.

Aurreko premisekin bat etorriz, une honetan beharrezkoa da eskola adineko jarduera fisikoko eta kiroleko jardueren 2024-2025 ikasturteko programari onespena ematea.

Horren ondorioz, Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Departamentuko foru diputatuak hau

EBAZTEN DU

*Lehenengo.* Onestea 2024-2025 ikasturterako eskola adineko jarduera fisikoko eta kiroleko (JFK) jardueren programa (foru agindu honen I. eranskina). Era berean, honako eranskinak ere onesten dira:

— II. eranskina: 2024-2025 ikasturteko eskola adineko JFKko jardueren programako jarduerak egitean sortzen diren gorabehera berezi jakin batzuk bideratzeko prozedura.

— III. eranskina: Hastapeneko jardueren laburpen taula eta parte hartzeko lehiaketa jardueren laburpen taula.

— IV. eranskina: Boleiboleko kirol bakarreko hastapeneko programa.

— V. eranskina: Hockeyko kirol bakarreko hastapeneko programa.

— VI. eranskina: Izotz hockeyko kirol bakarreko hastapeneko programa.

— VII. eranskina: Piraguismoko kirol bakarreko hastapenen programa.

— VIII. eranskina: Txirrindularitzako kirol bakarreko hastapeneko programa (Ziklismo Anitza programa).

— IX eranskina: Arraunketako kirol bakarreko hastapeneko programa.

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE CULTURA, COOPERACIÓN, JUVENTUD Y DEPORTES

*Orden Foral FA-KG-2024-0374, de 29 de julio, por la que se aprueba el programa de actividades de actividad física y deporte en edad escolar para el curso 2024-2025.*

La diputada foral del Departamento, con fecha de hoy, ha dictado la siguiente orden foral:

La Ley 2/2023, de 30 de marzo, de la actividad física y del deporte del País Vasco, y el Decreto 125/2008, de 1 de julio, sobre deporte escolar, constituyen el marco legal conforme al cual los órganos competentes de las diputaciones forales han de elaborar los programas de actividades de actividad física y deporte en edad escolar de sus respectivos Territorios Históricos.

Asimismo, el Plan Vasco del Deporte, aprobado por el Consejo del Gobierno Vasco el 22 de julio de 2003 y por el Consejo Vasco del Deporte el 2 de junio de 2003, recoge las directrices para la organización del deporte escolar en el ámbito de la CAPV.

De acuerdo con las anteriores premisas, resulta preciso, en estos momentos, prestar aprobación al programa de actividades de actividad física y deporte en edad escolar correspondiente al curso 2024-2025.

En su virtud, la diputada foral del Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes

RESUELVE

*Primero.* Aprobar el programa de actividades de actividad física y deporte (AFD) en edad escolar para el curso 2024-2025, que se adjunta como anexo I a la presente orden foral. Asimismo, se aprueban los siguientes anexos:

— Anexo II: Procedimiento para resolver determinadas incidencias singulares que se produzcan en el desarrollo de las actividades del programa de actividades de AFD en edad escolar para el curso 2024-2025.

— Anexo III: Cuadro resumen de actividades de iniciación y cuadro resumen de las competiciones de participación.

— Anexo IV: Programa de iniciación monodeportiva de voleibol.

— Anexo V: Programa de iniciación monodeportiva de hockey.

— Anexo VI: Programa de iniciación monodeportiva de hockey hielo.

— Anexo VII: Programa de iniciación monodeportiva de piragüismo.

— Anexo VIII: Programa de iniciación monodeportiva de ciclismo (Programa Multiciclismo).

— Anexo IX: Programa de iniciación monodeportiva de remo.

EK\CV GAO-I-2024-05748

— X eranskina: Atletismoko kirol bakarreko hastapeneko programa.

— XI. eranskina: Arriskuak estaltzea. Dirulaguntzen araudia. Kirol sariak.

*Bigarren.* Foru agindu honen indarraldia 2024ko irailaren 1etik 2025eko abuztuaren 31ra bitartekoa izango da.

*Hirugarren.* Agintzea Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu dadila foru agindu hau eta onesten den eskola adineko jarduera fisikoko eta kiroleko jardueren programa.

Denek jakin dezaten argitaratzen da hori.

Donostia, 2024ko uztailaren 29a.—Iñaki Sainz Paredes, idazkari teknikoa. (5748)

I. ERANSKINA

*2024-2025eko eskola adineko jarduera fisikoko eta kiroleko jardueren programa.*

Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Fisikoari eta Kirolari buruzko martxoaren 30eko 2/2023 Legean eta Eskola kirolari buruzko uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuan ezartzen denez, Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokio eskola adineko jarduera fisikoko eta kiroleko (JFKko) programa prestatzea, onartzea eta gauzatzea, aipatutako dekretuan jasotako jarraibideen arabera.

Era berean, Eskola kirolari buruzko uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuak eskola adineko kirolaren euskal ereduaren ezaugarri orokorrak ezartzen ditu.

Horren ondorioz, Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Departamentuaren jarduera Gipuzkoako eskola adineko kirola aipatutako araudian xedatutakora egokitzera bideratuta dago.

Ildo horretan, eskola adineko JFKko jarduera programaren hezkuntza printzipioa bermatzeko, zenbait neurri hartu dira. Horrela, jarraipena eman zaio 2017an egindako hausnarketa prozesuari. Prozesu horretan, Gipuzkoako eskola adineko kirol eragileek parte hartu zuten. Haien artean, nabarmentzekoa da ikastetxea jardueren ardatz egituratzaile gisa kokatzea, eskola adinean dagoen biztanleriaren interes gorena babesteko.

Bereziki, kirol anitzeko programa aipatu behar da (ikastetxearen kirol anitzeko eskaintza); izan ere, testuinguru egokia da eskola adinean kirol parte hartzailea eta ekitatiboa lortzeko, ikasle guztiek kirola egiteko aukera izan dezaten. Kirol anitzeko programa horrek Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Fisikoari eta Kirolari buruzko martxoaren 30eko 2/2023 Legean jasotako ezaugarriak ditu, Lehen Hezkuntzako etaparako jardueretarako.

* Programako jarduera guztietan bete behar diren arau orokorrak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Fisikoari eta Kirolari buruzko martxoaren 30eko 2/2023 Legean ezarritakoaren arabera, Gipuzkoako Foru Aldundia arduratzen da eskola adinean JFK praktikatzeaz, kirol anitzekoa batez ere, eta ez soilik lehiaketara bideratua, ikasle guztiek jarduera fisikoa eta jarduera fisikoa ezagutu eta praktika hori beren borondatearen, gaitasun fisikoaren eta adinaren arabera egin dezaten.

Gainera, bat etorriz Arartekoren urriaren 27ko 6/2011 Gomendio Orokorrarekin, zeinaren arabera eskola kirolean, une oro eta testuinguru guztietan, hezkuntza parametroak bete behar diren, Gipuzkoako Foru Aldundiak konpromiso hau hartu du: programan parte hartzen duten ikasleei bermatzea tratu egokia emango dietela programako jarduerekin zerikusirik duten erakundeek eta norbanakoek. Horretarako, Foru Aldundiak heziketa giro baikor bat sortzen lagunduko du eta, beraz, eskola kirolaren

— Anexo X: Programa de iniciación monodeportiva de atletismo.

— Anexo XI: Anexos: Cobertura de riesgos. Régimen de ayudas económicas. Premios deportivos.

*Segundo.* La presente orden foral entrará en vigor el día 1 de septiembre de 2024, y extenderá su vigencia hasta el 31 de agosto del año 2025.

*Tercero.* Ordenar la publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa de la presente orden foral y del programa de actividades de actividad física y deporte en edad escolar que se aprueba.

Lo que se publica para general conocimiento.

San Sebastián, a 29 de julio de 2024.—El secretario técnico, Iñaki Sainz Paredes. (5748)

ANEXO I

*Programa de actividades de actividad física y deporte en edad escolar 2024-2025.*

Tal y como se establece en la Ley 2/2023, de 30 de marzo, de la actividad física y del deporte del País Vasco y en el Decreto 125/2008, de 1 de julio, sobre deporte escolar, corresponde a la Diputación Foral de Gipuzkoa la elaboración, aprobación y ejecución de programa de actividades de actividad física y deporte (AFD) en edad escolar, de acuerdo a las directrices que se contienen en el Decreto citado.

Asimismo, el Decreto 125/2008, de 1 de julio, sobre deporte escolar, establece las características generales del modelo vasco de deporte en edad escolar.

Consecuentemente, la actuación del Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes está orientada a adaptar el deporte en edad escolar de Gipuzkoa a lo dispuesto en la citada normativa.

En esta línea, con el fin de garantizar el principio educativo del programa de actividades de AFD en edad escolar, se han llevado a cabo varias medidas, dando así continuidad al proceso de reflexión llevado a cabo en 2017 en el que participaron los y las agentes del deporte en edad escolar de Gipuzkoa. Entre ellas, destaca posicionar al centro escolar como eje vertebrador de las actividades al objeto de salvaguardar el interés superior de la población en edad escolar.

En particular, cabe mencionar el programa multideporte (oferta polideportiva del centro escolar), el cual se considera un contexto idóneo para la consecución de un deporte en edad escolar participativo y equitativo que garantice el acceso a la práctica deportiva a todo el alumnado. Dicho programa polideportivo cuenta con las características recogidas en la Ley 2/2023, de 30 de marzo, de la actividad física y del deporte del País Vasco para las actividades en la etapa de Educación Primaria.

* Normas generales para todas las actividades del programa.

De acuerdo con lo establecido en la Ley 2/2023, de 30 de marzo, de la actividad física y del deporte del País Vasco, la Diputación Foral de Gipuzkoa vela por una práctica de AFD en edad escolar preferentemente polideportiva y no orientada exclusivamente a la competición, de tal manera que se garantice que toda la población escolar conozca y desarrolle la práctica de AFD de acuerdo con su voluntad, aptitud física y edad.

Además, de acuerdo con el contenido de la recomendación general del Ararteko 6/2011, de 27 de octubre, para que el deporte escolar se desarrolle, en todos sus momentos y contextos, bajo parámetros educativos, esta Diputación Foral de Gipuzkoa ha adquirido el compromiso de garantizar que las diversas entidades y el personal implicado en la realización de las actividades de este programa se comporten de manera adecuada en el trato con las y los escolares participantes, propiciando la creación de

EK\CV GAO-I-2024-05748

hezkuntza xedetik aldentzen diren portaera beldurgarri, umilgarri eta laidogarriak oztopatuko ditu.

Era berean, portaera desegokiak edo zuzenean arbuiagarriak –irainak, mehatxuak, mespretxuak, eta abar– saihestea eta desagerraraztea nahi da, portaera hezitzailetzat ezin direnez hartu eta edozein hezkuntza arlotan erabat arbuiagarriak direnez, nahiz eta kirol batzuetan bizirik dauden.

Bestetik, 2024-2025 ikasturtean jarraipena emango zaio 2017-2018 ikasturtean hasitako ikuskaritza lanari, zeinaren azken helburua baita eskola adineko kirolaren arloan indarrean dagoen araudiaren ez-betetzeak saihesten edo zuzentzen saiatzea. Kirolean baloreak sustatzeak berekin dakar arauak eta akordioak betetzea ere, eta ikuskapen ekintzen bidez haiek betetzen direla bermatu nahi da.

Ildo horretan, azpimarratu behar da eskola umeen kirol hastapen optimoa bermatzearren foru erakundeak neurriak hartzen dituela kirol aniztasuna sustatzeko eta adin goiztiarretan espezializazio goiztiarra saihesteko, adingabeen interesak eta beharrak babestuko dituen praktika bat eta adin horretatik aurrera etengabe praktikatzea zaintzeko, Gipuzkoako Batzar Nagusiek Eskola kirolari buruzko 66/2022 Mozioan adierazitakoari jarraikiz.

Eskola adineko kiroleko inskripzioen bilakaerari dagokionez, Gipuzkoan etengabe hazi da izena eman duten ikasleen kopurua azken urteetan. Bestetik, 2023-2024 ikasturtean, igo egin zen Gipuzkoako eskola adineko JFKko jardueren programan parte hartzea.

Zehazki, 2023-2024 ikasturtean, hazkunderik handiena ikastetxeetako Jolas Hezi programan gertatu zen eta Multikirola programak azken urteetako hazkundearekin jarraitu zuen.

Parte hartzeko lehiaketa jarduerean izena emateko prozedurari dagokionez, eta aurreko ikasturteetako balorazio positiboa kontuan hartuta, 2024-2025 ikasturtean benjamin kategoriatik aurrera izena ematen jarraituko da jarduera antolatzen duen entitatearen bidez (ikastetxea edo kluba), mendizaletasunaren kasuan izan ezik, ikastetxearen bidez egiten jarraituko baita.

Ildo horretan, jarraipena ematen zaie aurreko ikasturtean piraguismo, txirrindularitza, izotz hockey, squash, scooter, boleibol eta hockeyko lurralde federazioekin lortutako akordioei, eta 2024-2025 ikasturtean, atletismoa eta arraunketako lurralde federazioekin akordioak lortu dira, benjamin eta alebin kategorietan parte hartzeko lehiaketetan. Horrenbestez, adierazitako modalitateetako edo diziplinetako kluben edo ikastetxeen bidez egiten diren jarduerak ikastetxeko Multikirola programa osatzen dute eta ez dute ordeztuko.

Bestetik, nabarmentzekoa da Eskola Kirol Inklusiboaren Estrategia (EKI) garatzen duten taldeak ugaritu egin direla Multikirolaren programaren barruan. Programa hori aniztasun funtzionala duten eta ez duten ikasleek osatzen dute, modu inklusiboan. Ildo beretik, gehitu behar da hainbat udalerrik sartu dutela Eskola Kirol Egokituaren (EKE) eskaintza ohiko eskola adineko JFKko jardueren programaren barruan, programa hori normalizatzen eta hezkuntzako eragileen artean zabaltzen laguntzeko.

Horretarako, azken urteotan Gipuzkoako Foru Aldundiak hainbat dirulaguntza ildo garatu ditu, eta haiek, praktikan, dibertsitate funtzionala duten ikasleen behar espezifikoei erantzuteko sare bat finkatzeko balio izan dute, bai ikastetxeko erreferentzia taldeetan (Eskola Kirol Inklusiboa - EKI), bai dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako talde espezifikoetan (Eskola Kirol Egokitua - EKE). Azken hori praktika inklusiboa eskaini ezin den kasuetarako soilik erabili da.

un clima formativo positivo e impidiendo, por tanto, la aparición de conductas intimidatorias, humillantes o denigrantes, que alejen la práctica deportiva escolar de su orientación educativa.

En la misma línea, se pretende evitar y erradicar la aparición de conductas inadecuadas o directamente reprobables, tales como insultos, amenazas, menosprecios, etc., difícilmente clasificables como educativas y claramente rechazadas en cualquier otro ámbito educativo pero que, sin embargo, perviven en el desarrollo de algunas prácticas deportivas.

Por otro lado, a lo largo del curso 2024-2025 se dará continuidad a la labor inspectora iniciada en el curso 2017-2018 cuyo objeto final es tratar de evitar y/o corregir los incumplimientos a la normativa vigente en materia de deporte en edad escolar. El fomento de valores en el deporte alcanza también al cumplimiento de las normas y los acuerdos y a través de las acciones de inspección quiere garantizarse su cumplimiento.

En este sentido, cabe destacar que, para asegurar una óptima iniciación deportiva de los y las escolares, desde el ente foral se adoptan medidas para fomentar la multideportividad y evitar la especialización precoz en edades tempranas, con el fin de velar por una práctica que defienda los intereses y necesidades de los y las personas menores y su práctica continuada en edades posteriores, siguiendo la instancia de las Juntas Generales de Gipuzkoa en la Moción 66/2022 sobre Deporte Escolar.

En cuanto a la evolución de las inscripciones en el deporte en edad escolar, Gipuzkoa ha experimentado un crecimiento sostenido en el número de escolares inscritos en los últimos años. Por otro lado, en el curso 2023-2024, se produjo un aumento en la participación del programa de actividades de AFD en edad escolar de Gipuzkoa.

Concretamente, en el curso 2023-2024, el mayor crecimiento se produjo en el programa Jolas Hezi de los centros escolares y el programa Multikirola continuo con el crecimiento sostenido de los últimos años.

En relación con el procedimiento para la inscripción en las actividades de competición de participación, y teniendo en cuenta la valoración positiva de los cursos anteriores, en el curso 2024-2025 las inscripciones a partir de la categoría benjamín se seguirán realizando a través de la entidad que organice la actividad (centro escolar o club), excepto en montañismo, que se seguirán realizando a través del centro escolar.

En este sentido, dando continuidad a los acuerdos alcanzados el curso anterior con las federaciones territoriales de piragüismo, ciclismo, hockey hielo, squash, scooter, voleibol, y hockey, en el curso 2024-2025 se sumarán las federaciones territoriales de atletismo y remo, en las competiciones de participación en las categorías benjamín y alevín, las actividades que se realicen a través de los clubes o centros escolares de las modalidades/disciplinas indicadas serán complementarias y no sustitutivas del programa polideportivo Multikirola del centro escolar.

Por otro lado, cabe destacar el incremento de equipos que desarrollan la Estrategía de Deporte Escolar Inclusivo (EKI) dentro del programa de Multikirola, que se compone por escolares con y sin diversidad funcional de forma inclusiva. En la misma línea, añadir que son varios los municipios que han incorporado la oferta de Deporte Escolar Adaptado (EKE) dentro de su programa de actividades de AFD en edad escolar convencional, favoreciendo así la normalización y difusión de dicho programa entre los y las agentes educativos.

A tal fin, durante los últimos años la Diputación Foral de Gipuzkoa ha ido desarrollando diversas líneas de subvención que, en la práctica, han servido para consolidar una red de atención a las necesidades específicas de la población escolar con diversidad funcional, tanto en los grupos de referencia del centro escolar (Deporte Escolar Inclusivo - EKI), como en grupos específicos para personas con diversidad funcional (Deporte Escolar Adaptado - EKE), éste último únicamente para aquellos casos en los que no es posible ofrecer una práctica inclusiva.

EK\CV GAO-I-2024-05748

Ildo beretik, aipatzekoa da Gipuzkoako Kirol Egokituko Federazioaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko elkarlanari esker, EKI Gida gauzatu dela. Gidak tresna bat izan nahi du kontzientzia hartzeko eta inklusioaren bidean aurrera egiten lagunduko diguten zenbait ezagutza eskuratzeko. Hala, tresna egokia izan dadin eremu bakoitzeko eskola adinean kirola inklusiboagoa, hezigarriagoa eta kolaboratiboagoa izateko, eta bizikidetza hobetzen lagunduko duten baloreak transmititzeko.

Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Babesteko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoari (aurrerantzean, LOPIVI) eta Haur eta Nerabeen otsailaren 15eko 2/2024 Legeari dagokionez, 2022-2023 eta 2023-2024 ikasturteetan, administrazio publikoek beharrezkoak diren tresnak prestatu dituzte kirol arloan adingabeekin lan egiten duten erakundeei esleitutako obligazioak betetzeko, ingurune seguruak eraikitzeko, hala nola: (1) babes ordezkariaren izendapena; (2) sentsibilizaziorako eta protokoloaren erabilerarako prestakuntza; (3) protokolo bat abian jartzea; eta (4) monitorizazio sistema bat ezartzea. Horrekin guztiarekin batera, aholkularitza zerbitzuak eta komunikazio kanpainak egin dira, aipatutako legeak bete ahal izateko.

IBILBIDEAK ETA KIROL JARDUERAK

*I. Parte hartzeko ibilbidea.*

Kirolean parte hartzeko ibilbidearen helburu nagusia hau da: hala nahi duten eskola ikasleek jarduera fisikoak eta kirola egitea, kirol modalitate desberdinak ezagutzea, kirola egiten ohitzea eta bizimodu osasuntsua izatea.

1. Hastapeneko jarduerak.

Hastapeneko jarduerak kirol modalitate desberdinak irakasteko dira, ez daude lotuta lehiaketetan parte hartzearekin, eta irekiak dira parte hartu nahi duten ikasle guztientzat, bakoitzaren kirol gaitasunagatik mugarik jarri gabe.

Horrelako jarduerek ezaugarri desberdinak izaten dituzte, helburuen arabera.

Beraz, hiru sail bereizten dira:

— Onurakoak: eguneroko bizitzan balio handia duten kirol modalitate edo teknikak ikasteko direnak (adibidez, igeriketa).

— Jolasekoak: egunero egiten ez dituzten edota ez ohiko instalazioetan egiten diren kirolean aritzeko aukera ematen dietenak (adibidez, hipika).

— Kirol xedekoak: eskoletan gero eta gutxiago edota oraindik gutxi egiten diren kirolak sustatzeko ekintzak (adibidez, boleibola).

Bestetik, jarduera horietan parte hartzeko gutxieneko adina aldatu egingo da jarduera bakoitzaren ezaugarrien arabera.

Beraz, hiru jarduera talde handi daude:

— Inguruneari egokitzeko jarduerak: kirol modalitate espezifiko bat egiten hasi aurreko jarduerak dira, ohikoak ez diren inguruneetan moldatu ahal izateko beharrezkoak diren oinarrizko trebetasunak eskuratzeko.

Jarduera mota horretan hasteko gutxieneko adina benjamin aurreko kategoriako lehen urtean ezartzen da.

— Garapen psikomotorreko jarduerak: oinarrizko mugimendu trebetasun jakin batzuk eskuratzera eta egokitzera bideratu-

En esta línea, cabe destacar que la colaboración entre la Federación Guipuzcoana de Deporte Adaptado y la Diputación Foral de Gipuzkoa ha permitido la materialización de la Guía EKI. La guía pretende ser una herramienta útil para la toma de conciencia y la adquisición de ciertos conocimientos que nos ayuden en el camino hacia la inclusión. Así, el objetivo es que sea una herramienta adecuada para que el deporte sea más inclusivo, educativo y colaborativo en la edad escolar, dentro de cada ámbito, y pueda transmitir valores que ayuden en la mejora de la convivencia.

En relación a la Ley Orgánica 8/2021, de 4 de junio, de protección integral a la infancia y la adolescencia frente a la violencia (LOPIVI, en adelante) y la Ley 2/2024, de 15 de febrero, de Infancia y Adolescencia, durante los cursos 2022-2023 y 2023-2024 las Administraciones Públicas han elaborado las herramientas necesarias para el cumplimiento de las obligaciones atribuidas a las entidades que trabajan con personas menores en el ámbito del deporte, en aras de construir entornos seguros, como: (1) el nombramiento de persona delegada de protección; (2) las formaciones de sensibilización y de uso de protocolo; (3) la puesta en marcha de un protocolo, y; (4) la implantación de un sistema de monitorización. Todo esto acompañado de distintos servicios de asesoramiento y campañas de comunicación, con el objetivo de hacer posible el cumplimiento de las citadas leyes.

ITINERARIOS Y ACTIVIDADES DEPORTIVAS

*I. Itinerario de participación.*

El objetivo principal del itinerario de participación deportiva es que el o la escolar que lo desee practique actividad física y deporte, conozca diversas modalidades deportivas y adquiera un hábito deportivo y un modo de vida saludable.

1. Actividades de iniciación.

Las actividades de iniciación son actividades de enseñanza de las diversas modalidades deportivas no ligadas a la participación en competiciones, dirigidas a toda la población escolar que desee tomar parte en ellas, sin restricciones derivadas de sus aptitudes para la práctica deportiva.

Las actividades incluidas bajo este epígrafe revisten características diversas en función de los objetivos que persiguen.

Consecuentemente, se distinguen tres grupos:

— De carácter utilitario: son actividades encaminadas a proporcionar el aprendizaje de técnicas o modalidades deportivas de gran utilidad en la vida diaria (por ejemplo, la natación).

— De carácter recreativo: son actividades encaminadas a posibilitar la práctica de actividades no habituales o en instalaciones no convencionales (por ejemplo, la hípica).

— De carácter deportivo: son actividades encaminadas a promocionar modalidades deportivas con problemas de regresión o escasa implantación en el ámbito escolar (por ejemplo, el voleibol).

Por otra parte, las edades mínimas para participar en estas actividades variarán en función de las características de cada una de ellas.

En este sentido, se distinguen tres grandes grupos de actividades:

— Actividades de adaptación al medio: son actividades previas al inicio en una modalidad deportiva específica, dirigidas a la adquisición de las habilidades básicas necesarias para poder desenvolverse en medios no habituales.

La edad mínima para la iniciación en esta clase de actividades se establece en el primer año de la categoría prebenjamín.

— Actividades de desarrollo psicomotor: son actividades dirigidas a la adquisición y el afinamiento de una serie de habilida-


EK\CV GAO-I-2024-05748

tako jarduerak dira, kirol modalitate edo diziplina bakoitzaren gaitasun espezifikoak garatzeko aldez aurreko eta ezinbesteko urratsa baitira.

2018-2019 ikasturtean zehar, Gipuzkoako Foru Aldundiak benjamin aurreko kategorian egiteko jardueren ereduzko programa bat ezarriko du (Jolas Hezi), helburu hauekin: batetik, garapen psikomotorra, soziala eta afektiboa garatzea; eta, bestetik, bi sexuetako eskola umeek balioak barneratzea. Jarduera horiek soilik ikastetxeetan egingo dira, Gipuzkoako Foru Aldundiak horretarako ezarritako programaren arabera egin ere.

Bestetik, kontuan hartuta gaur egun judo eta gimnastikari lotutako hainbat jarduerak zeregin hori betetzen dutela, adin tarte honetan egingo diren jardueren izaera hezitzailea zehaztu asmoz, modalitate hauek beren jarduerak garatzerako orduan Jolas Hezi programak jasotzen dituen helburu eta edukiak hartu beharko dituzte oinarri.

Jarduera mota horretan hasteko gutxieneko adina benjamin aurreko kategoriako lehen urtean ezartzen da.

— Modalitate edo diziplina espezifiko baten hastapeneko jarduerak: dagokion kirol modalitate edo diziplina espezifikoaren berariazko trebetasunak eskuratzera eta garatzera bideratutako jarduerak dira. Diziplina horiek eskola adineko JFKko jardueren urteko programa honetan jasotako hastapeneko jardueren eskaintzan biltzen dira.

Jarduera mota horretan hasteko gutxieneko adina modalitatearen araberakoa izango da, kasu batzuetan benjamin kategoriako lehen urtea baino beranduago ezartzen delarik.

1.1. Parte hartzeko arau orokorrak.

2024-2025 ikasturtean Gipuzkoako unibertsitatez kanpoko irakaskuntza zentroetan ikasi eta matrikulatuta dauden ikasle guztiek parte hartu ahal izango dute hastapeneko jardueretan (nahiz eta Kirol Zuzendaritza Nagusiak salbuespenak baimendu ahal izango dituen). Horretarako finkatzen diren epeetan eman beharko dute izena.

Ikasturtearen hasieran, hastapeneko jarduera guztiei buruzko informazio bateratua bidaliko da, jarduera bakoitzaren ezaugarriak eta partaidetza arauak bertan azalduko direlarik. Halere, kirol modalitate bakoitzeko berezitasuna kontuan hartuz, ikasturtean zehar aipatu informazioa sakontzen duten hainbat zirkular ere bidali ahal izango dira.

Udako kanpainako jardueretan parte hartzeko deialdia udalerri bakoitzean egingo da.

Hori horrela, «Uda-2025» kanpaina eskola adineko kiroleko edukien barruan sartzen da bete-betean, eta, egitura eta antolaketa esparruari dagokionez, egokitze logikoa du. Egokitze horrek oporrak hartzen diren garaian egin behar da, eta, beraz, ikastetxeak bestelako esku hartze bat egin behar du.

Ikastetxearen zeregina izango da oro har natura ingurunean garatzen diren jolas izaerako kirol jardueraren eskaintza ikasleek jaso dezaten laguntzea. Ikasturtean zehar garatutakoen osagarri direlarik, jarduera horietan aritzeak ikasleen kirol prestaketa aberasten du, eta beraz horien heziketa integrala errazten du.

1.2. Arau administratiboak.

Hastapeneko jardueretan parte hartzeko izena ematerakoan prozedura ezberdinak daude, kirol modalitatearen arabera.

Horregatik, ikastetxe batek horrelako aktibitateetan parte hartu nahi badu, modalitate jakin horri buruzko informazio berezian adierazten diren tramiteak egin behar ditu.

des motrices básicas, paso previo e imprescindible para el desarrollo de las habilidades específicas propias de cada modalidad o disciplina deportiva.

El curso 2018-2019, la Diputación Foral de Gipuzkoa estableció un programa modelo de actividades a desarrollar en la categoría prebenjamín (Jolas Hezi), dirigido al desarrollo psicomotor, social y afectivo y a la interiorización de valores por parte de la población escolar. Estas actividades se desarrollan exclusivamente en los centros escolares, conforme al programa establecido al efecto por la Diputación Foral de Gipuzkoa, cuyos objetivos y contenidos se pueden consultar en la página web del ente foral.

Por otra parte, teniendo en cuenta que en la actualidad determinadas actividades ligadas a modalidades como judo y gimnasia cumplen esta función, con el propósito de consolidar la base educativa de las actividades a desarrollar en esta franja de edad, estas modalidades deberán desarrollar sus actividades en base a los objetivos y contenidos que recoge el programa Jolas Hezi.

La edad mínima para la iniciación en esta clase de actividades se establece en el primer año de la categoría prebenjamín.

— Actividades de iniciación a una modalidad o disciplina específica: son actividades dirigidas a la adquisición y el desarrollo de las habilidades específicas propias de la modalidad o disciplina deportiva correspondiente. Las distintas disciplinas se recogen en la oferta de actividades de iniciación en este programa anual de actividades de AFD en edad escolar.

La edad mínima para la iniciación en esta clase de actividades depende de la modalidad, siendo en algunos casos posterior al primer año de la categoría benjamín.

1.1. Normas generales de participación.

Podrán tomar parte en las actividades de iniciación del curso 2024-2025 todos los y las escolares que se matriculen durante el citado curso en algún centro de enseñanza no universitaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa (excepto situaciones extraordinarias que, en todo caso, deberán contar con la autorización de la Dirección General de Deportes) y que efectúe la correspondiente inscripción en los plazos que se establezcan.

Al comienzo del curso se enviará de forma conjunta la información de todas las actividades de iniciación, en donde se indicará tanto las características de cada actividad como las normas de participación en las mismas. No obstante, y atendiendo a la singularidad de cada modalidad deportiva, a lo largo del curso podrán remitirse distintas circulares ampliando dicha información.

La convocatoria para tomar parte en las distintas actividades de la campaña de verano se realizará de forma específica en cada municipio.

Así, «Uda-2025» se enmarca en los contenidos propios del deporte en edad escolar, con la lógica adaptación, en cuanto a su marco estructural y organizativo, que exige el período vacacional en el que se desarrolla, el cual obliga al centro escolar a una intervención diferente.

En este sentido, la función del centro escolar se orientará a facilitar a su alumnado el acceso a una oferta de actividades deportivas de carácter recreativo y que se practican, generalmente, en el medio natural. La práctica de estas actividades, complementarias a las desarrolladas durante el curso escolar, enriquece la formación deportiva del alumnado y, en consecuencia, favorece su educación integral.

1.2. Normas administrativas.

Los procedimientos de inscripción para participar en las distintas actividades de iniciación son diversos y dependen de la modalidad de que se trate.

Por ello, si un centro escolar desea participar en alguna de las actividades, deberá realizar los trámites que se indican en la información específica de dicha modalidad.

EK\CV GAO-I-2024-05748

Jolas Hezi programako jardueren kasuan, taldeen eta parte hartzaileen inskripzioa ikastetxeen bidez egingo da internet bitartez, administrazio izapideak errazteko horretarako diseinatutako informatikako aplikazioan sartuz, zehazki «irakaskuntza-hastapena-programa» ibilbidean.

Jolas Heziko jardueretan parte hartzen duten taldeen eta partaideen izen-emateak egiteko epea 2024ko urriaren 15ean amaituko da.

2. Parte hartzeko Lehiaketa jarduerak.

Parte hartzeko lehiaketak hautaketa hutseko eskema batetik kanpo egiten diren kirol lehiaketak dira.

Parte hartzeko lehiaketek hezitzea eta jolas egitea dute xedetzat, eta parte hartzaileen kopuruari dagokionez ez dago inolako mugarik. Modu zikliko batean zenbait kirol ezagutzeko eta egiteko eskubidea bermatzen zaie ikasleei.

Asteburuetan parte hartzeko lehiaketetan eta/edo topaketetan parte hartzen duten ikasleek hastapeneko irakaskuntza jarduerak (asteko entrenamenduak) egiten dituzte, asteburuetako jarduerari begira beharrezkoak diren ezagutzak eta esperientziak eskuratzeko. Hastapen jarduera horiek kirol anitzeko edo kirol bakarreko hastapen jarduerak izan daitezke.

Parte hartzeko lehiaketen eta/edo partiden gehieneko kopurua ikasturtean zehar, bai eta asteko irakaskuntza jardueren gehieneko kopurua ere (entrenamenduak), foru agindu honen bidez arautzen dira, inplikatutako eragileekin koordinatuta.

Saskibaloiko, eskubaloiko, futboleko eta errugbiko modalitateetako hastapen unitateak (kirol eskolak) irakasteko jardueren kasuan, jarduera horiek honako honen bidez arautzen dira: «2024-0213 Foru Agindua, maiatzaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Fisikoari eta Kirolari buruzko martxoaren 30eko 2/2023 Legea aldatzen eta egokitzen duena, 40-133/2021 Foru Agindua, ekainaren 29koa, eskola-umeentzako kirol-hastapeneko unitateak baimentzeko araubide orokorra eta saskibaloiko, eskubaloiko, futboleko eta errugbiko modalitateen hastapen-unitateen araubide espezifikoa onartzen dituena».

Lehiaketa horietan parte hartzeko esparrua, batez ere, ikastetxea edo kirol kluba da, kasuaren arabera.

Parte hartzeko lehiaketa jarduerak benjamin, alebin, infantil eta kadete kategorietako ikasleei zuzentzen zaizkie.

Esparruaren arabera, bi txapelketa mota daude, barruko lehiaketak eta kanpokoak, hau da, Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketak.

2.1. Barruko Lehiaketak.

Barruko lehiaketak dira ikastetxeen barruan antolatzen direnak, ikasleen artean kirola sustatzeko helburuarekin.

Lehiaketa horiek antolatzeko ikasleek antolaketa lanetan jardutea bultzatu behar da, bai taldeen osaera eta izena ematean, bai lehiaketaren aldi teknikoetan, hau da, egutegiak egitea, arbitrajeak, emaitzak jasotzea, sailkapenak egitea eta abar.

Era berean, jarduera horiek antolatzeko ikasleak ikasturtea bitartean kirol batean baino gehiagotan aritzea bultzatu beharko da.

Gainera, modalitate guztietan erabiliko diren joko arautegiak parte hartzaileen adinetara egokitu beharko dira, eta barruko lehiaketa hauek antolatzerakoan, ez da aukeratu behar ordu eta egunik kanpo lehiaketei trabarik egingo dienik.

En el caso de las actividades del programa Jolas Hezi, la inscripción de equipos y de participantes también se realizará por medio de los centros escolares a través de internet, accediendo a la aplicación informática diseñada con la finalidad de facilitar los trámites administrativos, concretamente, en el itinerario de «enseñanza-iniciación-programa».

El plazo para realizar las inscripciones tanto de los equipos como de los y las participantes en las actividades de Jolas Hezi finalizará el 15 de octubre de 2024.

2. Actividades de competición de participación.

Las competiciones de participación son aquellas competiciones deportivas que se desarrollan fuera de un esquema puramente selectivo.

Las competiciones de participación se conciben con un carácter eminentemente educativo y lúdico, sin ninguna limitación en lo relativo al número de participantes. En su regulación se procura garantizar el derecho de toda la población escolar a conocer y practicar diversos deportes de un modo cíclico.

Las y los escolares que participan en las competiciones de participación y/o encuentros los fines de semana, realizan a su vez, actividades de enseñanza de iniciación (entrenamientos semanales), orientadas a la adquisición de conocimientos y experiencias necesarias de cara a la actividad del fin de semana. Estas actividades de iniciación pueden ser actividades de iniciación polideportivas o monodeportivas.

El número máximo de competiciones de participación y/o encuentros a lo largo del curso escolar, así como el número máximo de actividades de enseñanza semanales (entrenamientos) se regulan a través de la presente orden foral, de forma coordinada con las y los agentes implicados.

En el caso de las actividades de enseñanza de las unidades de iniciación (escuelas deportivas) de las modalidades de baloncesto, balonmano, fútbol y rugby, estas se regulan a través de la «Orden Foral 2024-0213, de 2 de mayo, que modifica y adapta a la Ley 2/2023, de 30 de marzo, de la Actividad Física y del Deporte del País Vasco, la Orden Foral 40-133/2021, de 29 de junio, por la que se aprobó el Régimen general de autorización de las unidades de iniciación deportiva para escolares y el régimen específico de las unidades de iniciación de las modalidades de baloncesto, balonmano, fútbol y rugby».

El marco de participación en estas competiciones es preferentemente el centro escolar o el club deportivo, según el caso.

Las actividades de competición de participación se dirigen a escolares de las categorías benjamín, alevín, infantil y cadete.

En función de su ámbito, se distinguen las competiciones internas y las competiciones externas, esto es, los Campeonatos Escolares de Gipuzkoa.

2.1. Competiciones Internas.

Por competiciones internas se entienden aquellas que se organizan en el seno de los centros escolares, a fin de promover la práctica deportiva de su alumnado.

En la organización de dichas competiciones se debe impulsar que el alumnado asuma tareas organizativas, tanto las relativas a la inscripción y composición de equipos como al desarrollo de los aspectos técnicos de la competición, esto es, elaboración de calendarios, arbitrajes, recogida de resultados y elaboración de clasificaciones, etc.

Asimismo, la organización de dichas actividades debe contemplar la práctica de varios deportes a lo largo del curso escolar.

Además, los reglamentos de juego a aplicar en las diversas modalidades deben estar adecuados a las edades de los y las participantes, y las fechas y horarios de realización de estas competiciones internas no debe alterar el desarrollo de las competiciones externas.


EK\CV GAO-I-2024-05748

Ikastetxeek lehiaketak antolatzeko laguntza nahi badute, Gipuzkoako Foru Aldundiak Kiroletako Eskualdeko Bulegoen bidez emango die.

2.2. Kanpoko lehiaketak: Gipuzkoako eskolarteko txapelketak.

Kirol anitzeko jarduerak egiteko aukera bermatuta dago benjamin eta alebin kategorietan, kirol anitzeko jardueren egutegiak ezarriz, oro har, ikastetxeko Multikirola programaren bidez; izan ere, testuinguru egokitzat jotzen da kirol anitzeko jarduera bat bermatzeko ikasle orori, prozesua emaitzaren gainetik lehenetsiz.

Multikirola programa kirol anitzeko hastapeneko programa da, lehentasunezkoa eta erreferentea, tokikoa eta komunitarioa, lehiaketara bakarrik bideratuta ez dagoena. Ikastetxeek garatzen eta gauzatzen dute, toki entitateen eta gainerako ikastetxeen lankidetzaren bidez eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin koordinatuz, benjamin eta alebin kategorietako ikasle guztien prestakuntza helburuak, helburu inklusiboak eta erabateko parte hartzea bermatzeko helburu bakarrarekin. Kirol hastapeneko jarduerekin, topaketekin eta/edo parte hartzeko lehiaketekin osatzen da.

Gainera, hala nahi duten ikasleek ere parte har dezakete kirol modalitate edo diziplina bakar baten hastapen programan. Kirol entitateek nagusiki gauzatutako programa da, kirol modalitate bakarraren hastapenean oinarritzen dena eta Multikirola programaren osagarria izango dena, eta ez ordezkoa benjamin edo alebin kategorietan, kirol-modalitate bakoitzaren berariazko araudiaren arabera eta urteko programak xedatzen duenaren arabera. Programa honek kirol bakarreko hastapen jarduerak (asteko entrenamenduak), parte hartzeko lehiaketak eta/edo asteburuetako topaketak biltzen ditu.

Nolanahi ere, lehiaketa horietan izena eman nahi duten klubek edo ikastetxeek parte hartu nahi duten ikasle oro onartu beharko dute beren taldeetan, eta, beraz, ezin izango dute taldeak osatzeko hautaketarik egin.

Bestetik, hastapen adinetan ikasle guztien garapena eta parte hartzea bermatu eta testuinguru lehiakor bat ekiditeko asmoz, benjamin kategorian burutzen diren «topaketetan» ez da sailkapenik egongo. Hori horrela, Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketak alebin kategoriatik aurrera ospatuko dira.

Infantil eta kadete kategorietan, berriz, ikasleen lehiaketa jarduerak kirol modalitate bakar batera jo behar du praktikan. Izan ere, kategoria hauei dagozkien adinak kirol espezializazioan hasteko egokiak direla pentsatzen da.

Hala ere, espezializazio hori ez da zentzu hertsian ulertu behar; aitzitik, taldeko kirol bat eta banakako beste bat egin ditzaten saiatu behar da.

Lehiaketa hauen ezaugarri diren heziketa eta jolas helburuak lortzeko aintzakotzat hartzekoa den elementuetako bat kirol modalitate guztietako arautegiak adin desberdinen beharrei eta eskakizunei egokitzea da. Horiek Gipuzkoako Foru Aldundiko web orrian daude eskuragarri.

Taldearen osaera, partiden iraupena, postu espezifikoetan jokalariak txandakatzea eta materialak eta jokalekuen dimentsioak egokitzea, horra zeintzuk diren haurrari kirol jarduera bere interesekin bat datorren zerbait bezala bizi dezan aukera emango dioten faktoreak, beste batzuen artean.

Adinen edo kategoria desberdinen beharretara egokitutako araudiak pixkanaka lantzeak gehitu egiten ditu lehiaketa jardue-

La Diputación Foral de Gipuzkoa, a través de sus Oficinas Comarcales de Deportes, asesorará a aquellos centros que lo deseen para la organización de tales competiciones.

2.2. Competiciones externas: competiciones escolares de Gipuzkoa.

La posibilidad de la práctica polideportiva queda garantizada en las categorías benjamín y alevín mediante el establecimiento de calendarios de actividades de contenido polideportivo, generalmente, a través del programa Multikirola del centro escolar, ya que se considera un contexto adecuado para garantizar una práctica multideportiva a todo el alumnado priorizando el proceso por encima del resultado.

El programa Multikirola –programa de iniciación polideportiva– es un programa prioritario y de referencia, local y comunitario, no dirigido exclusivamente a la competición. Los centros escolares desarrollan y ejecutan, con la colaboración de las entidades locales y del resto de centros escolares, y en coordinación con la Diputación Foral de Gipuzkoa, los objetivos formativos de todo el alumnado de las categorías benjamín y alevín, con el único fin de garantizar objetivos inclusivos y la plena participación. Se compone de actividades de iniciación polideportivas (entrenamientos semanales), encuentros y/o competiciones de participación.

Además, los y las escolares que lo deseen, también pueden participar en el Programa de iniciación de una única modalidad o disciplina deportiva. Se trata de un programa ejecutado preferentemente por entidades deportivas que se basa en la iniciación a una única modalidad deportiva y que será complementario y no sustitutivo del Programa Multikirola en las categorías benjamín o alevín según la regulación específica de cada modalidad deportiva y según disponga el programa anual. Este programa se compone de actividades de iniciación monodeportivas (entrenamientos semanales), competiciones de participación y/o encuentros los fines de semana.

En cualquier caso, los clubes o centros escolares que quieran inscribirse en estas competiciones deberán admitir en sus equipos a todo o toda escolar que lo desee, no pudiendo por tanto realizar selecciones para conformar los mismos.

No obstante, con el fin de favorecer el desarrollo y la participación de todo el alumnado en edades iniciales y evitar un ambiente competitivo, no existirá clasificación alguna en los «encuentros» correspondientes a la categoría benjamín. Por consiguiente, los Campeonatos Escolares de Gipuzkoa se celebrarán a partir de la categoría alevín.

En las categorías infantil y cadete la actividad de competición ha de tender a la práctica de una sola modalidad deportiva, entendiéndose que las edades correspondientes a estas categorías son adecuadas para el inicio de la especialización deportiva.

Ahora bien, esta especialización no ha de entenderse en un sentido estricto, sino que debe procurarse compaginar la práctica de un deporte colectivo y uno individual.

Uno de los elementos pertinentes para la consecución de los objetivos formativos y recreativos que caracterizan a estas competiciones consiste en la adaptación de los reglamentos de juego de las diversas modalidades deportivas a las necesidades y exigencias de las distintas edades, las cuales están disponibles en la página web de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

La composición de los equipos, la duración de los encuentros, la rotación de participantes en los puestos específicos, la adaptación de los materiales a utilizar y de las dimensiones de los terrenos de juego, son, entre otros, factores que refuerzan la posibilidad de que cada escolar viva su actividad deportiva como una realidad acorde con sus intereses.

La progresiva elaboración de reglamentos adaptados a las necesidades de las diversas edades o categorías aumenta las

EK\CV GAO-I-2024-05748

retan izena eman duten ikasle guztien parte hartze esanguratsua bermatzeko aukerak.

Dena den, araudiari buruzko alderdi hauek osatu behar dira kirol guztietako irakaskuntza sistemak sakondu eta hobetuz.

Ildo honetan, Diputazioaren jardunak xedea du, kirol federazioekin bat etorrita, adin edo kategoria ezberdinetara gehien egokitzen diren irakasketen helburu eta edukiak finkatzea.

2.2.1. Parte hartzeko arau orokorrak.

A. Partaideak.

2024-2025 ikasturtean Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketetan parte hartzeko, ikasturte horretan unibertsitatez kanpoko edozein ikastetxetan matrikulatuta egon behar da (aparteko kasuak salbuetsiz, zeintzuk, kasu guztietan, Gazteria eta Kirol Zuzendaritza Nagusi honen baimena eduki beharko duten). Epe barruan izena eman, eta Eskolarteko Txapelketen arauak errespetatu beharko dituzte.

B. Ikasle guztiek bere ikastetxearekin edo klub baten bidez parte hartuko dute.

Benjamin eta alebin kategorietan beti eta, hala dagokionean, infantil eta kadete kategorietan ere, matrikulatuta dagoen ikastetxea ez den beste bateko taldean izena emanda Eskolarteko Txapelketetan parte hartu nahi duen ikasleak, Kirol Zuzendaritza Nagusiaren baimena eskatu beharko du.

Oro har, ikasleei ez zaie baimenik emango matrikulatuta ez dauden beste ikastetxe batekin aritzeko, baldin eta beren ikastetxean baimena eskatzen duen kirol hori bera egiteko aukera badute.

Nolanahi ere, ikastetxeko zuzendariak idatzi eta sinatutako baimena aurkeztu beharko du.

